

LAN ESKAINTZAK

Formakuntza erakundearen koordinatzailea

➤ EGITURAREN AURKEZPENA

BIHAR Tokiko Moneten eta Trantsizio Ekologiko, Ekonomiko eta Sozialaren Institutua, 2017an sortutako elkarte da. Qualiopi ziurtagiria duen formakuntza-erakunde da, baita Trantsizio Ekologikoaren eta tokiko moneten gaitan esku hartzen duen ikerketa-zentroa ere. "Bihar" Euskal Herriko trantsizio ekologikoa azkartzeko sortu da, horretarako prestakuntza eskaintzeko. BIHAR institutua aditu-sare batean oinarritzen da eta laguntzen ere ditu (formatzaile bilakatzen, proiektuak eramaten...). BIHAR formazio estrategikoak proposatzen ditu hainbat gairi buruz, hala nola mugikortasunei, hondakinei, ekonomia zirkularrari, energiari, laneko eko-ardurari... edo tokiko monetei buruz, eskaintza berezi baten bidez: Frantziako eta Europako tokiko moneta guztiei zuzendu Tokiko Moneten Institutua. BIHARrek formatzen ditu bai pertsonak (enplegu-eskatzzaileak, partikularrak, laguntzaile boluntarioak, herritarren kolektiboak), bai enpresak, elkarteak eta lurralde elkargoak.

➤ LANPOSTUKO EGINKIZUN NAGUSIAK:

Proiektuaren garapena eta elkartearen animazioa:

- Administrazio Kontseiluaren eta Batzorde Pedagogikoaren bilkuren animazioa
- Administrazio Kontseiluaren erabakien gauzatzea
- Jarraipen administratibo eta soziala, kontularitzaren segitzea
- Partaidetzak garatzea eta finantza, estrategia, operazio alorretako partaideekiko harremana (elkargoekin, fundazioekin, formakuntza erakundeekin...)
- Diru laguntzak biltzeko txostenen, elkartearen urteko balantzeen eta formakuntza aktibitatearen (BPF) bildumen idaztea AKrekin eta/edo Estrategia Kontseiluarekin
- 2 eta 4 pertsona arteko talde baten koordinazioa eta misioen jarraipena:
 - Partaide diren Egituren laguntzea, beren formakuntza-aktibitatearen gara dezaten
 - Formakuntzen plangintza, antolaketa, kudeaketa administratiboa, garapena eta etengabeko hobekuntza
 - Formakuntzen prospekzioa eta salmenta
 - Komunikazio euskarrien diseinua eta eguneratzea

➤ GAITASUNAK

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren proiektuen koordinazioa
Langile talde misto baten kokatzea eta animatzea, txandakako ikasleak, beste ikasleak eta/edo zerbitzu zibikoak, eta laguntzaile boluntarioak animatzea (Administrazio Kontseilua, Pedagogia Batzordea...)

Bulegotikako tresnak menperatzea

Ondoko gaitan esperientzia ukaitea baloratuko da:

- Helduendako formakuntza/koordinazio pedagogikoan
- Formakuntza erakunde baten kudeaketan
- Animazio komertzialean
- Komunikazioan

➤ **EGITEN JAKITEA, IZATEN JAKITEA:**

Zorroztasuna, autonomia, inizatiba hartzea

Partaide ezberdinak proiektuaren inguruan mobilizatzeko gaitasuna, bereziki lurralde elkargoak eta partaide estrategikoak

Harremanetarako eta erredakziorako gaitasunak

Elkarteen munduaren eta funtzionamenduaren ezagutza

Trantsizio ekologikoarekiko interesa

Ipar Euskal Herriko erakundeen, enpresen, elkarten, Ekonomia Sozial eta Solidarioko eta

Trantsiziaren aldeko sareen ezagutzea

Euskararen ezagutza abantaila bat da.

➤ **KONTRATUAREN MODALITEAK:**

Denbora osoko lan kontratu mugagabe (lanaldi partziala posible da)

Soldata: 2100 € gordin

Postu hartzea: 2023ko azaroan

Lantokia: Baionako hiri-zentroa

Telelana posible da, puntualki

Mutualitatea % 50ean ordaindua izanen da, eta Osasuneko aseguruia % 100ean

Garraioetako abonamenduak % 50ean ordainduak izanen dira

➤ **HARREMANETARAKO:**

Marine Giraud

contact@institut-bihar.org

07 61 86 72 27

Zure burua aurkezteko, bidali CV bat eta motibazio gutun bat contact@institut-bihar.org helbidera,

Urriaren 30aren aitzin